



Eigoibar - 1302 zenb.
XXX urtea - 2023-10-20



Oldarraldiaren aurrean

Euskararekin bat, euskaraz bat

Xargola

Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka



Eskatu
saskia!



10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Balioaren %25 Nafarroa
hegoalde eta erdialdeko
euskaingintzara bideratuko da.



ikastolen elkartea




Sortzen



agerroldia

errigora.eus



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Ur zikinak garbi



"Berdegune, putzu-aintzira eta naturan oinarritutako bestelako diseinuak erabiltzea ahaztu zaigu orain arte"

Irailean marea biziak egon ziren. Itsas maila behe-behean zegoeneko egunean bainua hartu nuen Debako hondartzan, ekialdeko zatian. Beste aldean, ura ez da hain garbia egoten, Deba ibaiak itsasoarekin bat egiten baitu hor. Oraindik egongo dira errekaraz zabor poltsak eta bestelako zikinkeriak botatzen dituztenak, baina pentsatu nahi dut honezkero konturatuta egongo garela gure errekek ez zikintzea hil edo biziko kontua zaigula. Zorionez, Elgoibarren orain dela gutxi hasi ditu URA Agentziak ur zikinak araztegiara eramateko obrak Danobat industrigunean. Orain arte industriagune horretan, eta Mendaron oraindik ere tamalez, ur zikinak Deba errekaraz isurtzen dira. Hala ere, badirudi gobernatzen gaituztenek garbi dutela ur zikin horiekin zer egin.

Euri urekin, aldiz, ez dago hain garbi kontua. Gure hiriek gero eta lurralde eta azalera gehiago behar izaten dituzte euren beharrak asebetetzeko. Porlan eta hormigoizko lurzoru artifizializatuak sortzen dira. Eta orain arte euri uren kudeaketa oso sinplea izan da: urok lehenbailehen kanalizatu, eta errekaraz eraman, eta kito (besterik ez). Danaren antzeko ekaitz edota zikloiak datozenean, urbanizatutako lurzoruek uraren ziklo naturalaren abiadurak handiarazten dituzte. Eta ez dira gai ur kopuru handiak lurrazalean infiltratzeko, gordetzeko edota mantsotasunez errekaraz eramateko, naturak egingo lukeen gisan. Eta hor dago gakoa: berdegune, putzu-aintzira, eta naturan oinarritutako bestelako diseinuak erabiltzea ahaztu zaigu orain arte; bai kale berrien diseinuan eta baita gune zaharragoen berriz urbanizatzeko garaian ere.

Hirigintza arloan eta obretan aldatetako motel egiten dira, inertzia gehiegi daude sektore polit horretan. Eta asko dago hobetzeko, bai, hobetzeko eta betetzeko. Maiz entzun izan diet askori honakoa esaten: "Honela egin izan da beti". Amorratu egiten dit esaldi horrek. Beti erdipurdi egin izan bada, txukunago egiten saiatu behintzat!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Euskararen aurkako epaiak nahikoa da!

Hainbaten artean, euskarak identitatea eman eta herri gisa batzen gaitu.

Euskararen aurkako azken erasoak ez dira ez puntualak ezta kasualitatearen ondorio ere: gure izaera ahultzea helburu duen strategiaren zati dira. Bide batez, estatu-aparatuek burujabetza norena den erakusten digute.

Euskaldunen hizkuntza eskubideak aitortzen dituen lege eta araurik bada, baina epaileek interpretazio murritzalea egiten ari diren honetan, indartu beharrean direla agerikoa da. Epaileek, hizkuntza politika *de iure* egiten ari baitira. Onartezina.

Horrek, bai herri mugimenduek eta baita erakunde publikoek ere euskararen alde *de iure* eta *de facto* egiten ari diren lana oztopatu baino ez du egiten.

Epai horiek, adibidez, E.A.E.n 1982an onartutako Euskararen Legea, aterpe baino gehiago, zulatutako aterkin bihurtzen ari dira. Eta guzti horrek erantzun sendoa behar du; indarrak batu eta nahikoa dela aldarrikatzeko garaia da.

Horregatik Elgoibarko EH Bilduk bat egiten du Kontseiluak azaroaren 4an Bilborako egin duen deialdiarekin; era berean dei egiten diegu herritar

guztiei, Elgoibarko talde eta pertsona ezberdinek antolatuta, urriaren 26an Elgoibarren izango diren ekitaldi ezberdinetan parte hartzera, gure hizkuntzaren defentsa bidezkoa eta beharrezkoa delako.

Elgoibarko EH Bildu

Gazako sarraskia gelditu!

Palestinari elkartasuna erakusteko, Gazako sarraskia gelditzeko eta konponbide politikoa eskatzeko, Gernika-Palestina ekimen herritarrak manifestazio nazionalera deitu du larunbaterako Donostian. 17:30ean abiatuko da, Antiguako tuneletik. Antolatzaileek elkartasuna agertu diote Palestinari manifestu batean, besteak beste, kulturaren, hezkuntzaren, kirolean, feminismoan eta kazetaritzan erreferente diren Euskal Herriko pertsona ezagun ugari sinatu dute idatzia: "Sarraskia geldiarazteko gizarte zibilak duen aukera eta itxaropenerako leihoa hauxe da: mobilizazioa. Bi aldeetako zibilen heriotzak zeharo mingarriak dira, eta bake aukeratik urruntzen gaituzte, jada 75 urtez iraun duen gatazka honetan. Gazaren gaineko bonbardaketek ehunka hildako eta milaka zauritu eragin dituzte, horietako asko umeak dira, eta bertakoek argindarra, ura eta bestelako hornigaiak falta dituzte. Hau giza larrialdia da, ondorio humano, sozial eta politikoa larriak dituena, eta han gertatzen ari dena ezin dugu onartu". Goazen denok Donostiara! Gerrarik ez! Bizitza da handiena!

A.I.Z.

<p>Osasun gida</p>	<p>aldaz horts klinikak RPS233/13 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p>NATUR HOUSE Ainara Iriando Ansola GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA RPS 203/16 Toribio Etebarria, 22 Eibar 677 551 850</p>	<p>fisio&mas Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea Trenbido kalea, 13 943 740 191 / 667 953 698 www.fisio-mas.com RPS 177/12</p>
<p>RPS 271/12 ainhoa fisioterapia Jausoro plaza, 6 behe Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p>	<p>RPS 183/12 Uzuri optika audio Elgoibar 943 740 359 Deba 943 192 192</p>	<p>leku eder horts klinika RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar 943 530 053</p>	<p>federópticos ikus RPS 65/07 San Bartolome, 10 Tel.: 943 743 734</p>

Gau Beltzaren bueltan hainbat ekintza antolatu ditu Hezkuntza Mahaiak urri amaierarako

Gau Beltza urriaren 31ren bueltan ospatzen da Euskal Herrian. Arimen Gaua ere esaten zaio, eta hildakoak oroitzeko eguna izan ohi da. Egun horren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Hezkuntza Mahaiak urri amaierarako, herriko beste eragile batzuekin batera; Atabal elkarte, Gotzon Garate udal liburutegia eta Egur arte tailerra, hain zuzen ere.

Iaz egin zuten moduan, Ibilbide Beltza egingo dute aurten Gaba Beltz egunean bertan, hau da, urriaren 31n. Kalegoen plazatik Maalaraino joango dira ilunpean, horretarako propio prestatutako moztorroekin. 19:15ean hasiko dute kalejira, eta aurretik prestatuko dituzte moztorroak, Kalegoen plazan bertan.

Aurten, baina, berrikuntzak izango ditu Elgoibarko Gaba Beltzak. Urriaren 25etik azaroaren 1era Ihes Gela prestatu dute Gaba Beltzaren gaiarekin, 6tik 18 urtera arteko



ume zein familientzat. Txanda hartu beharko da labur.eus/gababeltza helbidean sartuta. Euskaraz jakitea ezinbestekoa dela ohartarazi dute antolatzaileek.

Era berean, beldurrezko ipuinak entzuteko aukera izango dute LH1-3 arteko umeek. Udal Liburutegian izango dira ipuin kontaketa saioak urriaren 30ean.

EH Bilduk dio "kalitatezko" garraio publikoaren alde lan egin beharra dagoela

Elgoibarko EH Bilduk dio administrazio publikoek bermatu egin behar dutela garraio publikoa erabiltzeko herritarren eskubidea eta zerbitzua baldintza egokietan ematen dela. "Mugikortasun ikuspegitik Elgoibar EAEko hiru hiriburuen erdian kokatua egotea indargune izan zitekeen arren, agerikoa da lurralde eta herri mailako mugikortasun politketan gure herriari ez zaiola lehentasun handirik eman. Besteak beste, Gasteiz eta Bilbora joateko genuen zuzeneko autobus zerbitzuak kendu egin zizkiguten, Altzolako tren geltokia kentzea erabaki dute, alternatibarik ipini gabe, eta ia lau urteren ondoren erdi garatuta jarraitzen du Herribusak", azaldu dute.

Garraio publikoari lotutako arazoan artean, Elgoibartik Donostiarako autobusa hartzeko bidaiari askok dituzten zailtasunak ere aipatu dituzte, "Donostiarako autobusa hartzeko asmoa duten bidaiari asko joan ezinik geratzen ari direlako, geltokian zut, autobusa Eibartik beteta



edo ia beteta etortzen delako".

Arazoak konpontze aldera eskualdeko EH Bilduk proposamen bat du eta Eusko Legebiltzarreko Debabarrena sustatzeko ponentzian aurkeztua dutela esan dute. Bilbo eta Gasteizera zuzenean joan ahal izateko Maltzagan geltoki bat egitea da proposamena. Alabaina, ponentzian aurkeztutako proposamen hori datorren urtera arte atzeratu dutela salatu dute.

Mankomunitatea "oso kezkatuta" dago gaika jasotzen den organiko kopuruaren jaitsierarekin

Debarreneko Mankomunitateak kezka erakutsi du gaika bildutako biohondakin kopuruak behera egin duelako. Datuen arabera, azken urtean % 7,5 murriztu da bereizita bildutako hondakin biodegradagarrien kopurua, 2022an biztanleko 66 kilo izatetik 2023an 61 kilo izatera igaro baita. Azken hiru hilabeteetako datuek, baina, alarma guztiak piztu dituzte Mankomunitatean. Izan ere, bereizita bildutako hondakin kopurua nabarmen jaisten ari dela identifikatu dute, oro har birzikla daitezkeen zatiki guztietan, baina bereziki biohondakinetan. Azken datuen arabera, gaur egun behar bezala sailkatutako 735 tona hondakin gutxiago biltzen dira duela urtebete baino, eta beherakada horretatik 323 tona biohondakinak dira. Horrez gain, hondakin organikoen kalitatea ere jaisten ari dela azaldu dute, eta astero ehunka poltsa desegoki ateratzen dituztela edukiontzi marroietatik, behar ez bezala beteta daudelako.

Egoera larri horren aurrean, Mankomunitateak neurriak hartuko ditu. Lehenik eta behin, biohondakin edukiontziak ixteko kontratazio-prozesua abian jarriko dute abian. Neurri horrekin hondakinak okerreko edukiontzietara botatzea saihestu nahi dute. Bestalde, hondakinak bereizten ez dituzten erabiltzaileen tasa zergapetzeko sistemara itzultzea aztertzen ari dira, eta hondakinak biltzeko ordenantza aldatuko du laster, hondakinak behar bezala banatzen ez dituzten erabiltzaileei espedienteak irekitzeko.



1087kg. kafe kapsula

Ekainean jarri zituen Debarreneko Mankomunitateak eskualdeko herrietan kafe kapsulak jasotzeko 45 edukiontzi, Eusko Jaularitzaren laguntzari esker. Orduetik, uztailean eta abuztuan 1087kg kafe kapsula jaso dituzte edukiontzietan. Uztailean 627kg, eta, abuztuan, berriz, 460kg.

2021ean jarri zuen Mankomunitateak kafe kapsulak minigarbiguneetan jasotzeko zerbitzua, Nestlé enpresarekin sinatutako hitzarmenari esker, baina herritarrei kapsulen birziklapena errazteko, 45 edukiontzi jarri zituzten eskualdean espreski kafe kapsulentzat. Hala ere, minigarbiguneetan kafe kapsulak jasotzeko zerbitzua ere mantentzen dute.

Stock azokako zozketako irabazleek jaso dute saria



Txankakua merkatari elkarteak 400 euro banatu ditu Stock Kale Azokan erosketak egin zituzten bezeroen artean. Honako lau lagunak izan dira sarituak: Ana Caballero, Yelba Zepeda, Paula Almeida eta Libia Guayara. Dagoeneko jaso dituzte sariak, 100 euroko lau erosketa bono, Txankakuako dendetan gastatzeko.

Herritarrek %25eko deskontua izango dute Bizi-Bizixa bonu kanpainaren barruan

Elgoibarko Udalak Bizi-Bizixa bonu kanpainaren beste edizio bat jarriko du martxan, herriko merkataritza dinamizatzeko eta biziberritzeko. Kanpaina honetarako 30.000 euro inbertituko ditu Udalak, eta 4.000 merkataritza-bonu aterako ditu guztira. Herritarrek %25eko deskontua izango dute azaroaren 30era arte egindako

erosketetan. Bonuak saltokietan erosi beharko dira erosketa egiten den unean, eta gutxieneko erosketa 5 eurokoa izan beharko da eta gehienez 60 eurokoa. Merkatariek urriaren 25a arteko epea dute (egun hori barne) kanpaina izena emateko eta deskontuak eskaintzeko. Izen-ematea telematikoki egin behar da *elgoibar.eus* atarian.

Dislexia ezagutzera emateko ekitaldiak egin zituzten Elgoibarren nazioarteko egunaren harira



Urriaren 8an da Dislexiaren Nazioarteko Eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu zituen Debabarreneko Dislexia Elkarteak urriko lehen astean. Egun handia, baina urriaren 7a izan zuten. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten Aita

Agirre plazan, eta gero, Mautitxa txarangarekin Sanlobeer garagardo azokan bazkaldu zuten. Dislexia kalera atera zuten, eta herritarrei nahasmenduari buruzko informazioa eman zieten.

Jon Garate 'Katalo' omenduko dute bihar

Abuztuan hil zen Jon Garate *Katalo*, eta bihar omenaldia egingo diote Elgoibarko ezker abertzaleko kideek eta lagunek. 13:00etan izango da, Giza Eskubideen Enparantzan.

'Nire bizitza nirea da' hitzaldia antolatu dute astelehenerako

Elgoibarko Duintasuna Elkarteak eta Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteak heriotza duinari buruzko hitzaldia antolatu dute astelehenerako. *Nire bizitza nirea da* izenburua jarri diote hitzaldiari, eta bi izango dira hizlariak: Isabel Agirre eta Iñaki Alegria. 11:15ean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

'10 urte bete-bete' kanpaina hasi du Errigorak, nafar hegoaldeko euskarari laguntzeko

Errigorak 10 urte bete ditu, eta urteurren hori ospatzeko kanpaina berezia hasi du, *10 urte bete-bete* lemapean. Hastapenean bezala, 50 eurotako saski bakarra izango da oraingoan eskuragarri. 23 ekoizle ekoiztutako bederatzi produktu ekologiko eta konbentzionalak izango ditu otarrak. Saski bakoitzaren kostuaren %25 nafar hegoaldeko euskalgintzara bideratuko dute. Eskaerak urriaren 20tik azaroaren 9ra bitartean egin ahal izango dira eta saskiak Elgoibarren nahiz Mendaron jaso ahal izango dira ondoren. Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen



ekimen herritarra da Errigora. Informazio gehiago: errigora.eus

Elgoibarko Udalak 700.000 euro gehiago jasoko ditu Foru Funtsetik 2024an

Udal Finantzaketarako Foru Funtzak (FFFM), Gipuzkoako udalen finantzaketa-mekanismo nagusiak, gorakada nabarmena izango du 2024an, aurreikuspenen arabera. 2023rako 610 milioi euroko hasierako zuzkidurarekin, funts hori 2022ko likidazioarekin alderatuta % 3,83 haziko dela kalkulatu dute. 2024. urterako, bestalde, igoera nabarmenagoa aurreikusi dute: 2023ko likidazio-aurreikuspenarekiko % 6,7koa. Testuinguru horretan, Elgoibarko Udalak 700.000

euro gehiago jasoko ditu Foru Funtsetik 2024an. 2023ko itxiera-aurreikuspena 9.427.798 eurokoa zen, eta kalkuluen arabera, 2024rako 10.115.969 eurokoa izango da. % 7,3ko igoera hori (688.172 euro gehiago) ekonomiaren martxa onari eta zergen bilketari zor zaiola adierazi dute Udaletik. Maialen Gurrutxaga alkateak esan du, Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa hobetzeaz gain, 2024ari baldintza hobeagoetan ekitea ahalbidetuko duela horrek.

Palestinaren aldeko elkarretaratzea egin zuten martitzenean



Nazioartean eta Euskal Herriko beste hainbat herritan egiten ari diren moduan, Elgoibarren ere elkartasuna adierazi diote Palestinari. *Gerrarik ez, elkarrizketa politikoa*

da bidea lemapean batu ziren hainbat herritar martitzen arratsaldean, Kalegoen plazan, gerraren kontra eta Palestina askatzeko eskatzeko.

Jolasa kalera aterako dute gaur herriko zenbait eragilek



Atxutxiamaikak, Udal Ludotekak eta Udal Gaztelekuak antolatu dute Jolasaren Astea, herriko beste zenbait eragilerek elkarlanean: Eskola Kirola, Zubi Ondo xake elkarte, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola, Lanbide Heziketa, San Lazaro zaharren egoitza eta Egur Arte Tailerra, besteak beste. Gaur Kalegoen plazara aterako dituzte jolasak, eta iazkoaren bidetik, mota desberdinetako jolasetan aritzeko aukera izango dute herriko umeeek. Euria egiten badu, elizako arkupeetan egingo dute, eta 0-5 urte artekoentzako eskaintza bertan behera lagako dute.

Sandra Caeiro mendaroarra da 'El Conquis' saioko lehen lehiakidea izateko hautagaietako bat

Gaztea irratiko ikus-entzuleei lagako diete aurten ere *El Conquis* saioko lehen lehiakidea izango dena hautatzeko aukera. Hiru lehiakide proposatu dituzte eta, Sandra Caeiro mendaroarra da horietako bat. 22 urteko mendaroarra suhiltzaile



izateko prestatzen ari da, kirolari amorrutua da eta une honetan herriko taberna batean lan egiten du. Helbide honetan eman daiteke botoa: eitb.eus/eu/gaztea/conquisgaztea/.

Datorren astean hasiko dira euskara eskolak ematen Mendaron

Mendaron bertan euskara eskolak jasotzeko aukera zabaldu du aurten ere Mendaroko Udalak, herriko Euskara Taldearekin elkarlanean, eta astelehenean hasiko dituzte eskolak bi taldek: oinarrizkotik hasten direnen taldea eta C1 mailako azterketarako prestatu nahi dutenena. Oinarrizkotik hasten direnek astelehen eta eguaztenetan izango dituzte eskolak, 14:30etik 16:30era bitartean, udaletxean bertan, eta C1erako prestatuko direnek martitzen eta eguenetan, ordutegi eta leku berean. Hirugarren talde bat ere osatu nahi dute, A2 mailarako prestatu nahiko luketenekin, baina taldea osatzeko bi lagun gehiago behar dituzte. AEK Euskaltegiekoek emango dituzte eskolak eta ikasturte osorako matrikulak 80 euroko prezioa izango du. Txanda bakarrean edo bitan ordaindu ahal izango da, eta ikasturte bukaeran matrikularen erdia itzuliko diete %80ko asistentzia izan dutenei. Era berean, eta euskara ikasteko interesa agertu dutenek egindako beste eskaera bati erantzun asmoz, mintzapraktika taldeak ere osatu nahi dituzte Mendaron. Interesatuek mendaroeuskaltegi@gmail.com helbidera idatzi dezakete edo 652 764 499 telefono zenbakira deitu.

Gurutze Gorriari eman diote San Roke jaietan zozkatutako orgatila



San Roke jaietan zozkatu zuten orgatilaren jabea ez da agertu, beraz, jai batzordeko kideek sariko jan-edanak Gurutze Gorriari ematea erabaki dute. Aste honetan bertan egin diote entrega.

AZKENALDIKO OLATU EUSKARAFOBOAREN AURKA, HILAREN 26AN KALEGOEN PLAZA BETETZERA DEITU DUTE ELGOIBARREN

✍️ Aina Argoitia

Azken boladan euskararen normalizazioa eta biziberritzea helburu duten neurrien kontra izan diren epai judizialei "erantzun irmo eta bateratua" emateko, azaroaren 4an Bilboko kaleak betetzera deitu zuten Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek, bai eta tokian toki mobilizatzerak ere. Eta dei horrekin bat egin du Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldeak. Hala, elkarretaratzea antolatu dute Elgoibarren urriaren 26rako. Kalegoen plazan egingo dute elkarretaratzea, 19:00etan, eta parte hartzera deitu dituzte elgoibartar eta mendarotar guztiak. Era berean, aurreratu dute azaroaren 4an Bilbora joateko autobus zerbitzua ere antolatuko dutela, Elgoibartik zein Mendarotik, Mendaroko In Leike kultur elkartearen lankidetzarekin.

Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat da euskalgintzak azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestaziorako aukeratu duen leloa eta "euskaltzaletasunarekin, edota elkarbizitza justu eta demokratiko batekin" engaiatuta dauden eragile guztiak deitu ditu oldarraldi judizialari erantzutera. Eta hala egingo dute Elgoibarren urriaren 26an. Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldeak antolatu du ekitaldia, 19:00etarako, eta Elgoibarko eta Mendaroko alkateek ziurtatu dute bertan izango direla. Baita UEMA Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkariak ere. Bilbon azaroaren 4an egingo den manifestazioaren atariko izan nahi du ekitaldiak. Bilbokoa azken urteotan euskararen alde egin den manifestaziorik jendetsuena izango dela aurreikusitako antolatzaileek eta Elgoibartik eta Mendarotik autobusak jarriko dituzte hara



joateko, 10 euroan. Elgoibarren, Jai Alai tabernan eta Elgoibarko Izarraren bulegoan (Aita Agirre, 3) eman ahalko da izena, eta Mendaron, Morroskillo dendan. Internetez, berriz, elgoibarkoizarra.eus webgunean.

EPATEGIETATIK DATOR ERASOA

Euskaraz bizitzeko aurrerabideen kontrako epaiak bata bestearen atzetik ari dira heltzen Euskal Autonomia Erkidegoan aspaldian, eta joera hori lehenagokoa da Nafarroan. Manifestazioa iragarri zutenean zein gerora euskararen kontra ebatzi diren hainbat ebazpen gogorarazi dituzte azaroaren 4ko manifestazioaren sustatzaileek, tartean Kontseiluak. Barakaldokoa da horietako bat. Orduan, CCOO sindikatuak egindako eskaera bat aintzat hartuta, EAeko Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen euskara ezin zela langileentzako betekizun gisa ezarri Udaleko kultur zerbitzuez arduratzeko enpresa bat kontratatzeke lehiaketan. Urtarrilean izan zen hori, eta otsailean beste danbateko bat eman zuen Gasteizko beste epaile batek. Laudioko Udalean zegokion hizkuntza eskakizuna ez betetzeagatik



lanpostua galdu zuen langile baten alde egin zuen epaileak orduan, eta kaleraturakoa berriro kontratatzeko agindu zion Udalari, euskara "zaila" dela arrazoituta. "Munduko hizkuntza zailenen zerrendan" euskara bosgarrena zela zioen epaian, eta zerrenda batzuetan lehenengo postuan ere agertzen zela. Argudio espantuzko hura zekarren sentenziaren atzetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren kontrako sententzia bat kaleratu zuen, zeinak baliorik gabe laga zuen euskarari lotutako puntu bat Bizkaiko ikastetxe publikoetarako eskola garraiorako esleipen batean. Epai hark zioen kontratazio publiko batean enpresa pribatuari administrazioarekin euskaraz harremantzeko baldintza jartzea "inposizioa" zela. Soka ez zen han eten. Maiatzean jakin genuen, adibidez, Irungo Udaltzaingo zerbitzurako 12 lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera lagatzeko epaia argitaratu zuela EAEko Auzitegi Nagusiak, derrigorrezko hizkuntza eskakizun hori euskara ez dakitenekiko "diskriminatzailea" zela esanda. Eraso guzti horiek "hizkuntz-politika diseinatzeko eta mugatzeko estrategia bati" erantzuten ziotela ohartarazi zuen Kontseiluak orduan eta

administrazio publikoaren eskumenaren kontra egitea leporatu zion botere judizialari.

Eta uztailaren 6an, "koska bat gora" egin zuen oldarraldi judizialak. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udalari euskaldunei euskara hutsez jarduteko aukera zabaltzen dien araua [EAEko Udal Legearen 6.2 artikulua] partzialki baliogabetuta. Udalen Legea kontsentsu zabalez onartu zuten Eusko Legebiltzarrean eta udalaren barruko funtzionamendurako deialdiak, gai ordenak, mozioak eta antzeko beste hainbat testu euskaraz bakarrik egiteko aukera ematen zien udalei, baldin eta zinegotzi denek euskaraz bazekiten. Horren harira Auzitegi Konstituzionalak ebatzi zuen, baina, euskararen aldeko hautua egitea hizkuntza eskubideen kontrakoa zela eta onartezina zela gaztelania erabili ahal izateko pertsona batek euskara ez dakiela arrazoitu beharra izatea. "Era berezi gabean izan behar da hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko modua, inolako argibiderik eman barik" zioen epaiak.

Martitzen honetan beste mailukada bat jaso zuen euskarak. EAEko Auzitegi Nagusiak bertan behera laga zituen Udal Legea euskararen alorrean garatzen duen dekretuaren artikulua batzuk, eta era horretan hizkuntza politikarako ahalmena mugatu die Udalei.

- **URRIAREN 26A:** Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldeak antolatuta, elkarretaratzea Elgoibarren, Kalegoen plazan, 19:00etan. Elgoibarko eta Mendaroko udaletako ordezkariak, UEMAko ordezkari batek eta Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldekoek hartuko dute hitza eta bertso musikatua kantatuko dituzte hara bildutakoek

- **AZAROAREN 4A:** Euskalgintzak deituta, manifestazioa Bilbon, *Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean. Euskalduna jauregitik abiatuko da manifestazioa, 17:00etan. Manifestazioaren alde atxikimendua emateko: www.kontseilua.eus.

Elgoibartik eta Mendarotik autobusa egongo da Bilbora joateko, 10 euro ordainduta. Txartelak Jai-Alai tabernan eta Elgoibarko Izarran eskura daitezke Elgoibarren, eta Morroskillo dendan, Mendaron. Internetez: elgoibarkoizarra.eus



MAIALEN GURRUTXAGA

Elgoibarko alkatea

"Urriaren 26rako antolatu duten elkarretaratzearekin bat egin dut, euskararen defentsa eta sustapena Elgoibarren gure nortasunaren eta kulturaren funtsezko alderdia dela uste dudalako. Euskararen aurkako eraso judiziala guztioi dagokigun gaia da, eta gure hizkuntza-ondarea defendatzeko beharra erakusten du. Gure komunitatearen kohesiorako aktibo baliotsua den gure hizkuntza babesteko eta biziberritzeko dugun konpromisoa adierazteko aukera da manifestazio hau. Euskalgintzak azaroaren 4rako antolatu duen manifestazioa gure kultura- eta hizkuntza-aberastasuna ospatzeko eta sustatzeko aukera paregabea da. Euskara funtsezko elementua da gure nortasunean eta ondarean, eta haren sustapena funtsezkoa biziraupena bermatzeko. Jarduera honetan parte hartzea euskara zaintzeko eta indartzeko lanean ari diren pertsona eta kolektiboek gure babesa adierazteko modu bat da. Elkarrekin, gure hizkuntzak eta kulturak aurrera egingo duten etorkizunean lagundu dezakegu".



ENETZ EZENARRO

Mendaroko alkatea

"Hamaika arrazoi ditugu deialdi hauekin bat egiteko. Euskara ofiziala denetik urte asko pasatu arren, udalerrri euskaldunok hamaika urte daramatzagu gure ohiko jarduna mugatu nahi duten epaiak pilatzen. Uztailen, esaterako, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2 artikulua; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrri barruko idatzizko dokumentuak euskara hutsez egiteko aukera ematen diena, hain zuzen ere. Kolpe handia da udalerrri euskaldunontzat; berriz ere bigarren mailako herritar bihurtu nahi gaituzte. Epaiaren beraren larritasunaz harago, testuingurua ere esanguratsua da. Azken hilabeteotako epaiak herritarren hizkuntza-eskubideak murrizteko erabakia erakusten dute. Epai guztiek oinarri bera dute: gazteleraren nagusitasuna ezartzea, legeak aitortzen duen euskararen ofizialtasuna kolokan jarritz".

Elgoibarko **EUSKARAK 365 EGUN** Taldea

Kalegoen plazatik Bilbora!

"Elgoibartarrok Kalegoen plazan bilduko gara berriz ere euskaldunak garelara eta izan nahi dugulara aldarrikatzeko. Aurretik ere behin baino gehiagotan bete dugu Kalegoen plaza Elgoibarko euskaldun eta euskaltzaleok, eta urriaren 26an ere hala egingo dugu.

Euskaldun izateko nahia epaileen eta erabaki judizialen gaineratik dagoela esateko elkartuko gara. Euskaldun izateko erabakia ez dugu epaileen erabakien mende lagako. Epaitegietatik datorrena datorrela, erabakia geurea da, eta hizkuntza-politikak gizarte zibilak eta alderdi politikoek markatuko eta erabakiko dituzte.

Euskaldunok ohituta gaude korrontearen kontra igeri egiten. Hala egin dugu sarri. Gainera, haizea kontra izan dugunean sortu ditugu herri hau euskaldunagoa izateko hamaika ekimen eta proiektu. Badirudi hala egiten jarraitu beharko dugula aurrerantzean, euskararen normalizazioa lortu arte. Egingo dugu. Egin nahi dugulako, eta gure aurrekoei eta ondorengoei zor diegulako.

Euskaldunon hizkuntza eskubideak mimoz zainduko ditugula jakin behar dute euskararen normalizazioaren kontra erabakiak hartzen dihardutenek. Ez diegula haien erabakiei men egingo, eta jakin egin behar dute euskaldunon kontra egiten duten bakoitzean aurrean izango gaituztela. Ahotsa altxatuko dugula. Kalera irtengo garelara. Geurea dena defendatuko dugula.

Izan ere, justizia soziala da jokoan dagoena. Herri eta norbanako moduan euskaldunok ditugun eskubide naturalen aldeko borrokan dihardugu, eta gure hizkuntzaren etorkizuna ez dugu epaileen eta epaitegien eskuetan lagako.

Azkenaldian izan dugun oldarraldi judizialaren aurrean euskararekin bat eginda aterako gara kalera. Euskaraz bat eginda. Bai Elgoibarren eta baita Bilbon ere".



EUKENE GURRUTXAGA

Mendaroko Euskara
Taldekoa eta In Leike
kultur elkarteko presidentea

"Bai nik eta baita nik ordezkatzan ditudan taldeak eta elkarteak ere bat egiten dugu deialdi hauekin euskararen kontrako erasoaldiak etenik ez duelako. Urte askoan euskararen normalizaziorako emandako aurrerapausoak ezereztan ari zaizkigu, eta lortutako eskubideak modu zentzugabean kentzen. Euskara segregaziorako tresna dela eta bereizketa sortzen duela ari zaizkigu esaten epaitegietatik azken bolada luzean, baina gu sinistuta gaude gizarte kohesiorako eta justizia sozialerako tresna ezinbestekoa dela. Euskara guztiona da, eta eraso hauen aurrean beharrezkoa du herritar eta instituzio guztien babesa. In Leike kultur elkartearen egitekoan zeharkako balore konstantea da euskara eta arrazoi asko ikusten ditugu bi deialdi hauekin bat egiteko. Euskalgintzaren Kontseiluak esan bezala, oldarraldi judizial honi etena jartzeko ordua da".



JON BARANDIARAN

Euskaltzalea,
Euskarak 365 Eguna Taldekoa

"Izugarri kostatu zaigu gauden lekura iristea, eta egin duguna baino gehiago da normaltasunera edo nolabaiteko normaltasun batera iristeko geratzen zaiguna. Epai hauen aitzinean beso gurutzaturik geratzea, urte eta hamarkadetako lan eta ahaleginak indargabetzen uztea litzateke. Euskaltzaleen mundutik kanpo leudekeenek ere badukete arazo honetan gogoetarako arrazoirik. Errepara erazi nahi nieke, langile publiko baten eskubideak bermatzeko euskara ez ezagutzeko eskubidea ontzat ematea, gizabanakoaren eskubideen izenean ahulen dagoena baztertu eta zapaltzea bidezkotzat ematearen pareko dela. Gizarte kohesionatu eta orekatu baten alde lan egiteko modu txarra. Euskararekiko axola handirik ez duenak ere, pentsatu behar luke horri buruz".



IBON AGINAGA IMAZ UEMAKo teknikaria Mendaron

"Udalerrri euskaldunek, udalerrri euskaldunetako udalek eta UEMAKo kideok hamaika arrazoi ditugu Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek azaroaren 4rako Bilbon deitutako manifestazioarekin bat egiteko. Izan ere, gurean euskara ofiziala denetik dozenaka urte pasatu diren arren, hamaika urte daramatzagu gure ohiko jarduna mugatu eta oztopatu nahi duten epaiak pilatzen. Azken aste eta hilabeteotan EAeko Justizia Auzitegi Nagusitik zein Espainiako Auzitegi Konstituzionaletik iritsi diren epaiak horren lekuko dira.

Epai hauek bete-betean eragiten diete UEMAK eta udalerrri euskaldunek urte askoan egindako lanari eta zabalduko bideari. Hizkuntza-plangintzak egitea edota euskara lehenestea baliogabetu nahi dute, beste kontu askoren artean. UEMAK eta udalek

helburuen artean dute udalerrietan euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia hauek oztopoa dira horretarako. Euskararen normalizazioa bera jarri baitute ezbaian auzitegiek. Euskara lehenestearen aurka egin dute, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik, ordea: minorizatutako hizkuntza sustatzea da, guztion eskubideak bermatzeko.

Epaien larritasunaz harago, testuingurua ere esanguratsua da. Izan ere, argi dago azken aste eta hilabeteotakoak ez direla sententzia isolatuak, botere judizialek hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak murrizteko erabakiaren eta oldarraldiaren erakusle baizik. Ez da kasualitatea epai guztien oinarria. Eta gaztelararen nagusitasuna ezartzen dute, eta, beraz, legeak aitortzen digun euskararen ofizialtasuna jartzen dute kolokan".

Ezpatak dantzan, Errosarioko Amaren omenez

Errosarioko Amaren ezpata-dantza berreskuratu zutenetik hamalaugarrengoz irten dira aurten kalera Haritz dantza taldeko kideak, Udal txistulari taldekoek lagunduta. Aurten, gainera, Errosarioko Amaren egunean bertan egin dute ezpata dantza, urriaren 7an. Dantzarien arteko kate edo soka lotzeko ezpatak erabiltzen direla da dantza honen ezaugarri bereizlea. Dantzari batzuek heldulekutik heltzen diote ezpata pisutsuari eta punta eskaintzen diote aldamenean duten dantzariari, eta era horretan hainbat figura irudikatzen dituzte: izarrak, zubiak edo arrosak. Euskal ezpata dantzak badu gainerakoetatik bereizi ohi duen beste ezaugarri bat: bakarlariak ez dira taldeari loturik joaten, eta ezpata txikiak eskuan, dantza erakustaldia egiten dute gainerakoen aurrean. Meza Nagusian hasi zen dantzaldia, ezpata txikien dantzarekin, eta segidan, Kultur Etxerantz abiatu ziren dantzariak, San Bartolome kalean barrena. Errosario kalean sartu ziren ondoren, eta Errosarioko Amaren aurrean egin zuten azken geldialdia, Kalegoen plazara iritsi aurretik. Argazki gehiago: barren.eus



'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso-saio musikatua izango da gaur, Herriko Antzokian

Minbizia modu batera edo bestera jasan dutenei laguntzeko eta gizartea sentsibilizatzeko *Tabuen kutxatik oholtzara* proiektu solidarioa sortu du Iñurri elkarteak, eta gaur iritsiko da Elgoibarko Herriko Antzokira, Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailen eskutik. 19:00etan izango da. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Nerea Ibarzabal arituko dira bertotan. Gai-jartzailea, Amaia Agirre izango da, eta musikariak, Gari Otamendi eta Ixak Arruti. Sarrerak aurrez erosi dituztenek mezu elektronikoa



hori erakutsi beharko dute txarteldegian. Bertan ere egongo da sarrerak erosteko aukera.

Clara Mejiasek irabazi du Ermuko Udalak antolatutako udako argazkien lehiaketa

Iaz bigarren saria eskuratu ostean, aurten lehenengoa jaso du Clara Mejias Barriosek Ermuko Udalak antolatutako 2023ko *oporak* argazki lehiaketan. Mundu osoan zehar ateratako argazkiak aurkez zitezkeen lehiaketara, eta Mejiasek etxetik gertu ateratako argazkia aukeratu du aurtengo ediziorako. Nerbioi ur-jauzian atera zuen argazkia, ortzadarra irten zen unean.



'Potx eta Lotx aireportuan' antzerkia domekan, Herriko Antzokian

Potx eta Lotx pailazoen ametsa hegazkinez bidaiatzea da, eta amets hori betetzear direla, megafoniatik esango diete beraien hegaldia atzeratu egin dela. Planak aldatu beharko dituzte pailazoen azken momentuan, eta hainbat abentura biziko dituzte. Domekan taularatuko dute antzezlanaren Elgoibarko Herriko Antzokian, 16:30etik aurrera. Ikuskizuna grabatu egingo dute, gainera, eta gero DVDa kaleratuko dute Elgoibarko emanaldiarekin. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean.

Kantua, dantza eta komunitatea josiko dituzte eguaztenean, musika eskolan

Kantua, dantza, euskara eta komunitatea josiko dituen ekimena izango da urriaren 25ean Elgoibarko musika eskolako auditoriumean, Elgoibarko Izarrak, Udalak, Musika Eskolak eta Haritz dantza taldeak antolatuta. Bi hitzaldi eta kantuak izango dira osagaiak: *Kantu bidean*, *Txori kantagiatik Leku Ederrera!* hitzaldia emango du Iñaki Iriart Casenavek, Amaren alabak taldeko abeslariak. Iparraldeko kantagintzaz berba egingo du, eta baita hango kulturaren baloreez ere. Segidan, musika eskolako Gaztanahia koruak bi abesti




kantatuko ditu: Amaren alabak taldearen *Ainerak egin* eta Xabier Leteren *Xalbadarren heriotzean*. Musika Eskolako 11 gaztek osatzen dute taldea, eta Silvia Hernandez da zuzendaria. Azkenik, Aritz Ibañez Lusarreta Duguna dantza taldeko zuzendariak *Euskararen zinta-dantza, euskara eta komunitatea txirikordatuz* hitzaldia emango du. Euskal dantza eta komunitatea hariak txirikordatuko ditu zinta dantzarekin simul bat egingez. 19:00etan hasiko da ekitaldia.

'Harri, herri, har' diskoa kaleratu du Amorantek

Iraupen laburreko bi disko eta luzeko bat plazaratu ostean, *Harri, herri har* diskoa plazaratu du Iban Urizar *Amorantek*, Forbidden Colours disketxearekin. Egileak berak aletu ditu bai diskoaren barrunbe emozional eta estetikoak, bai eta kanta bakoitzaren helduleku zein pizgarriak ere. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (Harri, herri, har) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Diskoan, kanpaiak, malenkonía, festa, animaliak eta poesia ageri dira. "Zahartzaroari edota zubi baten dantzan jartzeari kantatu diot. Harkaitz Canok errekek tristuraren sendabide bihurtu ditu. Odei Barrosok zezenaren begietatik epaitzen gaitu. Bilintzek *Pobrearen suertiarekin*,



gizartea hainbeste aldatu ez dela erakusten du. Azken batean, agure bat kanpai eske, habanera bat, iraultzaren nostalgia edota jai baten ostean topatutako poemak agertzen dira". Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateriajoleak, *Hatxeren* pianoa, Xabier Zeberioaren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.



Popatik musika taldeak kontzertua emango du hilaren 29an, Aita Agirre kulturgunean

Popatik musika talde ordiziarrek kontzertua emango du Aita Agirre kulturgunean. Urriaren 29an izango da, 12:30ean. 2021ean sortu zuten taldea Xabier Crehuetek, Ekaitz Goikoetxeak eta Aingeru Mayorrek, eta 2022an kaleratu zuten estreinako diskoa, *Maitzeari* izenburupean. Hamar abestik osatzen dute lan hori, eta pop musika estiloa da nagusi.

'Greenpiss' antzezlanak taularatuko du Yllanak gaur zortzi Herriko Antzokian



Yllanak antzerki taldeak *Greenpiss* antzerkia taularatuko du datorren barikuan, urriaren 27an, Herriko Antzokian. Umorea egiten du antzerki talde honek, eta dagoeneko, ezagunak dira Elgoibarren, azken urteotan behin baino gehiagotan etorri baitira. *Greenpiss* antzezlanak ekologiaren satira bat da, eta gure planetaren eta espeziearen biziraupenari buruzko gogoeta egiten dute, umoretik. Lau aktorek hartuko dute parte, baina bakoitzak paper bat baino gehiago beteko ditu, hasi politikarieratik eta pingunoetara arte. 19:00etan hasiko da ikuskizuna. Sarrerak aurrez eros daitezke *herrikoantzokia.eus* webgunean eta agortzen ez badira, egunean bertan ere salduko dituzte, txarteldegian.

Dantza jaialdia antolatu du Haritz dantza taldeak biharko

Haritz dantza taldea 50. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta ospakizunen barruan dantza jaialdia antolatu dute biharko. Eibarko Kezka dantza taldea, Iruñeko Duguna eta Haritz dantza taldea bera izango dira protagonistak. 11:30ean Maalatik irtengo dira kalejiran, Kalegoen plazara arte, eta han izango da gero dantzaldia. Euria egiten badu, Maalan bertan geratuko direla aurreratu dute. Arratsaldean, bestalde, Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin musika eta dantzaz beteko dituzte Elgoibarko kaleak, King-Kongetik hasita. 18:00etan izango da.



Puro Relajo taldeak kontzertua emango du urriaren 28an Elgoibarren, Kintada Egunean

Kintada Eguna antolatu dute urriaren 28rako, eta egun hori adin guztietako elgoibartarren jaia izatea nahi du Udalak. Kinto bakoitzak bere bazkaria antolatu behar du, baina eguna borobiltzeko Puro Relajo mariatxi taldearen kontzertua antolatu dute. Ez da Puro Relajok Elgoibarren joko duen lehen aldia izango, sanbartolomeetan ere etorri izan dira eta aurtengo jaietan ere Kalegoen plaza bete egin zuten. Oraingoan Maalako parkean joko dute, 22:30etik aurrera.



Antonio Arrillagaren margo erakusketa zabalduko dute gaur

Antonio Arrillaga Elgoibarren jaioa da, baina Bergaran bizi da aspaldidanik. Oraingoan, jaioterrira itzuliko da, bere margolaran erakustera. Paisaiak margotzen hasi zuen bere ibilbidea, baina gaur egun erregistro askotariko margolaria da. Margolari ibilbidean surrealismoari, futurismoari eta errealismoari ere egiten dio lekua. Konposaketak, collageak, koloreak, marrak... elementu ugari erabiltzen ditu. Kultur Etxeko erakusketa gelan egingo du erakusketa, gaurtik azaroaren 3ra arte. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.





LITERATURA IZAN DUTE GOGOETAGAI

✍️ Ainara Argoitia / 🎤 Asier Orbea



Literaturari eskaini diote aurten Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak Euskara ala ezkara jardunaldia, Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen oroimenez antolatu ohi dutena. Urriaren 7an egin zuten, IMHn, eta 65 bat euskaltzale elkartu ziren, literatur munduko eragileen azterketak eta gogoetak entzutera. Egitarau oparoa antolatu zuten antolatzaileek, eta lehenengo ordulaurdena Pitxintxu liburu, diska eta oparidendaren eskualdatzea irudikatzeko erabili zuten. 45 urtez Pitxintxuko nagusi eta langile izan diren Izaskun eta Marijose Estibaritzi agur esan eta dendan erreleboa hartu dien Sara Arriolari ongietorria egin zieten, Maite Lopez Las Heras poetaren, Haritz euskal dantzari taldeko Ane Espilla dantzariaren eta Andoni Urbieta txistulariaren laguntzarekin.

Omenaldiaren ondoren, Maialen Gurrutxaga alkateak eta Amaia Sastre Elgoibarko Izarrako Euskaltzaleon Topaguneko lehendakariak hartu zuten hitza, izena emandakoei ongietorria egiteko, eta Ainhoa Mendibil kazetariak egin zituen handik aurrerako aurkezpen lanak. Musikari bat eta 11 idazle gonbidatu zituzten, eta Anjel Lertxundik, euskal idazle oparoenetako bat denak, egin zuen sarrera-hitzaldia. Sarrerakoa izan zen, baina balio zezakeen Lertxundiren hitzaldiak goizak eman zuenaren laburpen gisa ere. *Hizkera, literaturaren kolorea jarri zion*

izenburua bere testuari, eta testu literario bat idazteko arkitekturaz eta arkitektura hori osatzeko materialez -trama, erritmoa, tonua...- aritu zen Lertxundi, bai eta idaztean hartu beharreko arriskuez, idazleak bizi dituen obsesioez eta euskaraz inoiz esan gabeei edo inoiz planteatu gabeko arazoei itzultzaileek eman behar izaten dizkieten irtenbideez ere.


Lertxundiren ondotik Harkaitz Zubiriren txanda izan zen. Irakaslea eta ikertzailea da Zubiri Euskal Herriko Unibertsitatean, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean eta Galestik aritu zen bideo-dei bidez, kulturak gizartea eraldatzeko duen indarrak. Hospitalet de Llobregateko Joaquim Ryura ikastetxeko dinamika baten bueltan harilkatu zuen bere diskurtsoa, esateko sosak baldintzatzen duela, baina ez determinatzen eta kulturak sekulako indar eraldatzailea daukala. L'Hospitalet de Llobregateko Florida auzoan dago kokatuta Joaquim Ryura ikastetxea, ahalmen ekonomiko apaleko familiak dira han eskolatutakoen %95, eta aurreiritziek bestela pentsatzeko bidea eman badezakete ere, hango ikasleen emaitza akademikoak eliteko eskoletakoen gainetik daude eta elkarbizitza ez da beste eskoletan baino txarragoa. Joaquim Ryura ikastetxeak hautsi egiten ditu familiek seme-alaben hezkuntzan duten pisu soziokulturala erabakigarria dela

esaten duten teoria guztiak, eta hori, hein handi batean, ardatzean literatura jarrita lortu dutela nabarmendu zuen Zubirik.

Goizeko atsedenenaren aurreko azken saioan bi idazle batu zituzten, Miren Amuriza eta Iñigo Aranbarri, eta hitz egokiaren bila jarri zituzten biak. Hitzaren esan-indarrak jardun ziren, nor bere bizipenetatik. Testuak esan-indar hori izan dezan nola egiten duten azaldu zuten, bai eta eginahal horretan zeintzuk traba identifikatzen dituzten ere. Bazen nahikoa hizketagai kafe ordurako, baina ez zen hor amaitu egunekoa. Bi mahai-inguru zeuden programatuta kafe-etena eta gerorako. *Itzulbideak, itzulinguruak eta itzulipurdiak* jarri zioten izenburua lehenengoari eta Uxue Alberdi idazleak gidatu zuen. Harkaitz Cano idazlea eta Arrate Hidalgo itzultzaile, editore eta kritikaria elkarrizketan jarri zituen Alberdik. Euskaraz sortutako literaturaren itzulpenaz jardun ziren, euskal literaturak esportatzen duenaz, eta hizkuntza gutxitutik hizkuntza hegemonikora itzultzeak suposatzen duenaz. Hiruko horren atzetik beste hiruko bat igo zen oholtzara: Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarra, Irati Jimenez idazle eta kazetaria, eta Asier Serrano idazle, musikari eta Hizkuntzaren Didaktika eta Euskal Literatura arloetako irakaslea IRALEn. Umetako oroitzenetatik abiatu ziren biak, irakurzaletasuna sustatzeko ondo egiten dena eta horren ondo egiten ez dena aletzeko. Eta bi ideia nagusi azpimarratu zituzten: denontzako kafeak ez duela balio, eta zintzoak izan behar dugula geure buruekin eta guk geuk irakurri ezean ezin dugula haurrek irakurriko dutela uste izan.

Eta hala, ohartzerako, amaiera-testua entzuteko ordua iritsi zen. Oihana Arana idazle eta bertsolariari eman zioten testu hori prestatzeko ardura eta azken traka antzeko bat izan zen hark ekarri zuena. Gaztetasunetik eta umoretik aritu zen Arana, eta mami eta musika handiko testua ondu zuen. Eta hala, borobila izateko gehiagoren beharrik ez zegoenean, iritsi zen azken kolpea, Meza Nagusia, Iban Urizar eta Uxue Alberdi artista elgoibartarren obra. Jardunaldiari bendizioa eman zioten bien artean.

Jardunaldi osoa bidean jaso dugu, atalka, eta luze gabe argitaratuko dugu **barren.eus** eta **euskaraalezkara.eus** webguneetan.





ZEHAZTASUNEAN DAGO ESAN-INDARRA



Esan-indarra jarri zieten solasaldirako abiapuntu Miren Amurizari (Berriz, 1990) eta Iñigo Aranbarriri (Azkoitia, 1963) 'Euskara ala ezkara literaturan?' jardunaldian, eta idatzizkoan adierazkortasun edo esan-indar hori lortzeko zer eta nola egiten duten azaldu zuten haiek aintzakotzat dituzten beste idazle batzuen erreferentziak baliatuta, bi txandatan, Amuriza hasita.

Sortu zen baserri auzoko andrekin izandako entzunaldietan barneratutako egitura, erritmo eta melodien gainean idazten duela esanez hasi zuen Miren Amurizak bere tarteak, eta nobela berria idazten ari dela jasotako oharrekin osatu zuen esan-indarraren inguruko bere gogoeta. 2000ko hamarkada lehenengo pertsona kontatuko duen nerabe rural poligonera bat da nobelako protagonista eta haren ahotsa paperera "modu dinamiko eta sinesgarrian" eramatea "buruhaustea eta dibertimendua", biak, ari zaizkiola izaten aitortu zuen; kontzientzia linguistikoaren eta idaztean har ditzakeen lizentzien artean negoziaketa etengabea dabilela, gazteleraz gertatzen diren errealitateak euskarara ekarri nahi horretan.

Amurizaren ustez, zehaztasuna dago esan-indarraren muinean, ahalik eta hitz gutxien erabilita hizkuntzari ahalik eta gehien esanaraztea. Horretarako, ahalegintzen da berba egokiena aukeratzen, baina ez bakarrik

berbaren adiera zehatzari erreparatuta. Hitzak berak darabilen hiztunaz edo haren kontestuz irakurleari iradoki diezaiokkeen informazioa ere aintzat hartzekoa dela uste du, ez zaiolako gauza bera, adibidez, "gogaituta" edo "rallatuta" egotea. Euskarazko egitura sintektikoak ahalik eta gehien zaintzea da berea, baina "itsutu barik". Horren harira aitortu zuen gazteleraz gertatzen diren errealitateak euskarara ekarri nahian ari den honetan sarri pasatzen dela bizkaieratik, eta sarriago gazteleratik, eta lehenetsi izan dituela gaztelarazko berbak, beti ere frantseseko eta ingelesezko itzulpenak antzekoak direnean edota euskarazko aldaerak baino "indartsuagoak, laburragoak eta zehatzagoak" direnean. Oreka zaintzean ikusten du jokoa, baina garbi du "malgutasun gehiagorekin eta zenbait hitz euskarara ekartzeko asmamen apur bat erabilia" irabazteko gehiago daukagula galtzeko baino.

Uxue Apaolazaren berbak bere eginda esan zuen literaturak ez lukeela hizkuntza

zaintzeko espazio bat izan behar, baizik eta esploraziorako eremu bat, baina horretarako bi baldintza eman behar direla: batetik, idazleak lexikoa, sintaxia eta gramatika ondo ezagutzea, gero nahieran erabili ahal izateko, eta bestetik, hizkuntza sendo bat izatea, gure komunitatea dagoen bezain hauskor egonda ez litzatekeelako "estrategikoa" beste hizkuntza batzuetan hartzen dituzten lizentziak hartzea; ez litzatekeelako estrategikoa, esaterako, euskalkietan edo ia-ia ahoskatzen den moduan idaztea, hitzak janda eta abar. Andrea Abreu idazle kanariarraren *Panza de burro* liburuari egin zion erreferentzia, literaturaren musikalitatearen onenetako baten gisa izendatu zuen liburuari, bide batez esanda. Gaztelera eta kanariera ofizialetik aldentuta idatzi zuen Abreuk *Panza de burro*, ia esaten duten moduan, eta hori euskaraz egitea "pentsaezina" dela nabarmendu zuen Amurizak.

Edozelan ere, hizkuntzarekin jolastearen alde agertu zen: "Eskuetan apurtuko zaidan beldurrik gabe manipulatzeko dut hizkuntza". *Panza de burro*-k izan dezakeen ahozkoasuna, bizitasuna eta oparotasuna euskalkian bilatzen ditu sarri Amurizak, baina egiten duenean ez du egiten estetika hutsagatik, baizik eta pertinetza zaiolako. Erasan izan dio, hala ere, kezka, *Basa (Elkar, 2019)* idazten ari zenean, esaterako. "Banuen kezka zenbatek lagako ote zuten testua irakurtzeari 'hau bizkaieraz dago' esanda, nahiz eta batuan egon".

NORBERE ARNASETIK IDAZTEA

Esan-indarrak Miren Amurizak esandako berbak berretsi zituen Iñigo Aranbarrik, idazle gisa bere arnasa topatzeko egindako bidearen deskribapena eginez, hasi umetatik eta gaur arte. Euskara etxean jaso zuen Aranbarrik eta umetan euskaraz bizi izan zen kalean eta lagunartean. "Euskara bizi" zuten, esan-indar handikoa, eta horrek ahalbidetu zien, besteak beste, gaur gaztelaniatik hartzen diren zenbait esapide eurek aspaldi euskaratuak izatea. Hein berean, baina, analfabetoak ziren euskaraz eta "trauma" zitzaien, esaterako, Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean, Ajea du urturik* edota *Aise eman zenidan eskua* liburuetakoa titularrak ere ulertu ezina, are gehiago Lertxundiren

azpieuskalki berekoak izanda. Gaztelania zuten kultura-hizkuntza. Gaztelaniaz egiten zuten eskolan, gaztelaniaz irakurtzen zuten literatura eta garai hartako "telebistako gaztelera ereduak ere ez zuen gaur egungoaren antzik"; erregistro kultua zuten gaztelaniaz. 14 urterekin, Hermann Hesse eta Franz Kafka moduko autoreen liburuak irakurtzen zituzten esaterako eta oinarri horretatik hasi ziren euskaraz idazten, "500 hitzeko ereduak", irakurtzen zutena egiteko gai zirela uste izanda, baina beren hizkuntzan analfabetoa izatearen kontzientziarik gabe. "Nahi genuen txukun idatzi, baina ez ginen kontziente zenbat genekien. Norbere arnasetik sortutakoak baino gehiago imitazioz sortutako esaldiak idazten genituen, esaldi pobreak. Izugarriko astakeriak egiten genituen; nahi genuena egiten genuen, garai hartan asko saltzea ere gaizki ikusia zegoelako eta pentsatzen genuelako, gainera, irakurleari ezin zitzaiola dena mamurtuta eman".

Bere arnasa topatzeko egindako bidea azaltzean euskararen arnaguneetan hazitakoan abantailez eta hutsunez, pedanteriaz, hitzen ekonomiaz, hutsune narratiboez, euskalkiez, probintzialismoaz, eta garbizalekeriaz aritu zen Aranbarri, besteak beste. Eta hari luze horretan hiru bat ideia nagusi azpimarratu zituen. Batetik esan zuen testuak esan-indarra izango badu, betegarri gutxi izan behar duela, eta hitzak eta hutsune narratiboak estu lotu behar direla. Komunikazioa lehenetsi behar dela, baina "torlojuekin" egin behar dela estilismoz. Euskalkien gaira etorrita, berriz, gaitz bat identifikatu zuen: probintzialismoa. "Probintzialismoa sartu zaigu hainbeste gaintu duela edozein diskusio filologiko ere. Hartu *butade* gisa, baina nik uste dut hasi behar dugula esaten euskalkirik ez dagoela. Ibili egin behar da, belarriak zabal izan behar dira eta apaltasuna izan". Belarria beti dela lagun ona esan zuen Aranbarrik eta ohartarazi zuen ahozko erritmoa idatzizkora ekartzeko ahalegin horretan purismoa galga dela askotan, bai behintzat gai modernoek heldzeko, eta arriskua ere badela irakurleengandik aparteregi ibiltzeko. "'Gafe' erabili orde zergatik ez dut 'kardaila' erabiliko Lekeition moduan? Baina, egiten badut ez al naiz ariko irakurleengandik oso urruti dagoen hautu bat egiten?".

Nerea Arrutik irabazi du 2023ko Emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketa

Emakumezkoen Euskadiko Aizkolari Txapelketako finala jokatu zuten domekan, Elgoibarren. Sei aizkolari aritu ziren lehian Kalegoen plazan: Nerea Arruti Salgado, Nerea Sorondo Maritorea, Oihana Fernandez De Barrena, Maika Ariztegi Mariezkurena, Malen Barrenetxea eta Ane Zapirain Odriozola. Sei pago enbor ebaki behar zituen aizkolari bakoitzak: 54 ontzako kanaerdiko bi, 45 ontzako bi enbor eta beste bi 36 ontzakoak. Lanak amaitzen azkarrena Nerea Arruti urnietarra izan zen, 17:59 denborarekin. (Iaz ere berak jantzi zuen txapela, Mungian). Nerea Sorondo nafarra izan zen bigarrena 3 minutu eta 55 segundora, eta Oihana Fernandez de Barrena arabarrak egin zuen hirugarren, 7 minutu eta 11 segundora.

Kirolean ibilbide ezberdina duten emakume seikotea aritu zen plazan. Adina eta esperientzia dira ezaugarriarik nabarmenenak; gazteak eta zailduak ez ezik, hasiberriak eta urteetan jardunean ari direnak bildu baitziren Kalegoen plazan. Gazteenak, Malen Barrenetxeak 14 urte ditu, eta zaharrenak, Maika Ariztegik, 51. Eguraldia lagun, ikusle ugari batu ziren herri kirol jaialdia ikustera, eta elgoibartarren berotasuna jaso zuten aizkolarietara. Emakumezkoen finalaren aurretik, 2. mailako gizonezkoen aizkolari txapelketaren finalerdietako bat jokatu zuten. Honako sei aizkolari lehiatuko ziren: Aritz Irazabal, Jon Rodriguez, Oihan Larretxea, Cesar Fernandez de Landa, Ibon Garaiburu, Iker Gorriti eta Iosu Santamaria. Sei enbor ebaki behar izan zituzten (54 ontzako hiru enbor, 60 ontzako enbor bat eta 72 ontzako beste bat). Denborarik onena egiten zuten lehenengo hirurak



sailkatzen ziren finalerako, eta hauek izan ziren hurrenez hurren: Oihan Larretxea, Aritz Irazabal eta Jon Rodriguez. Argazki gehiago: **barren.eus**

Imanol Alvarez eta Maite Maiora gailendu dira Idotorbeko Igoeran

Udako giroarekin jokatu zuten Julian San Joanen Oroimenezko txirrindulari lasterketaren 31. ekitaldia, urriaren 12an. 36 txirrindularik hartu zuten parte, eta zenbait urte parte hartu gabe zeramatzaten bi txirrindulari izan ziren azkarrenak: Imanol Alvarez (13:37) eta Maite Maiora (18:44). Alvarezek Eneko Ortega eta Iazko probako irabazlea, Mikel Perez de Obanos eibartarra, izan zituen aurkari gogorrenak. Ortegak ezarri zuen erritmoa izan zen indartsuenak bereizteko galbahea, eta aipaturiko



hiru txirrindulariak heldu ziren lasterketa buruan igoerako azken zatira. Kilometro baten faltan, baina, erregaia amaitu zitzaion Ortegari eta ezin izan zion Perez de Obanosen eta Imanol Alvarezen pedal kolpeari eutsi. Elgoibartarrak eta eibartarrak indarrak gordeta zituzten azken metroetarako eta esprint luze eta ikusgarrian jokatu zuten garaipena, errepide bazterretan ikusle gehien batuta zeuden tokian. Alvarez gailendu zen eta garaipena lortuta ametsa gauzatu duela esan zuen amaieran, bizitzan behin behintzat irabaztea desio zuten lasterketa zelako. Maite Maiorak 2016an hartu zuen parte azkenekoz Idotorbeko Igoeran eta errekorra ezarri zuen. Marka hura ontzeko asmoarekin irten bazen ere, katarro baten ondorioz ezin izan zuen igoera nahi zuen moduan egin. Probaren laburpen-bideoa eta sailkapenak barren.eus webgunean. 🚲 Asier Orbea



Cafes Baque Buruz Buruko Txapelketa irabazi du Iker Izagirre pilotari elgoibartarrak

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Errioxako kadete eta jubenil mailako manomanistikar onenak biltzen dituen Cafes Baque buruz buruko pilota txapelketa entzutetsuaren finalak jokatu zituzten urriaren 6an, Durangoko Ezkurdi pilotalekuan. Bizkaian banakako jokamoldean duten txapelketarik garrantzitsuena dela dio Bizkaiko Esku Pilota Federazioko presidente Enaitz Olaetak. Lazkaoko LAPKE taldeko pilotaria den Iker Izagirre elgoibartarra zen finalera ailegatu ziren lau pilotarien artean gipuzkoar bakarra, gainerako hirurak bizkaitarrak baitziren. Baque eskailera formatuan jokatzeko txapelketa da, eta Izagirre hiru kanporaketa gaindituta iritsi zen kadeteetako finalera: finalortzirenetako kanporaketan Ibarzabal markinarra kanporatu zuen 18-10 irabazita; Okiñena (Buruzgain)



kanporatu zuen final-laurdenetan 18-17 irabazita; eta, finalerdietako lehia 18-4 irabazi zion Seguiolari (Gazteleku). Izagirrek Unax Ramirez (Kurene Sopela) izan zuen aurkari finalean, eta partida parekatua jokatu ostean 18-15 nagusitu zen elgoibartarra.

Garagardo azokaren balorazio baikorra egin du Sanlok

Ia mila litro garagardo, 400 saltxitxa razio, 275 ukondo, 135 oilasko... Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak egin zuen Sanlobeer garagardo azokako zenbakiak dira horiek. Sanloko zuzendaritzak balorazio oso baikorra egin du eta pozik daude Sanlobeer azokan sortu zen giroarekin eta izan dituzten emaitzekin. Jakinarazi dutenez, garagardo normala edateko mila txartel saldu zituzten, hau da, 500 litro inguru. Garagardo bereziek ere estimazio handia eduki zuten, eta

800 txartel saldu zituzten; 400 litro guztira. Azken egunean egin zuten paella janean, berriz, 125 lagun elkartu ziren. Sanloko zuzendaritzako kideek eskerrak eman dizkiete garagardo azokara gerturatu diren herritar guztiei eta azoka aurrera eramaten lagundu duten guztiei, besteak beste, Elgoibarko Udalarari, babesleei eta klubeko jokalariei, entrenatzaileei, familiei, boluntarioei eta karpa musikaz girotu duten musikari guztiei.

Aloñara mendi irteera, domekan



Bueltan dira Morkaiko mendi taldeak herriko ikastetxeetako gurasoekin elkarlanean antolatzen dituen umeentzako mendi irteerak. Domekan egingo dute denboraldiko lehena, Aloña mendira. 09:30ean irtengo dira Mintxetako aparkalekutik, Arantzazuko aparkalekuraino joateko. Handik abiatuko dira oinez, Dururantz. Durun Aloñarako pista hartuko dute, tontorreraino ailegatzeko. Igoerako bide beretik itzuliko dira, eta eguerdirako Arantzazun egotea aurreikusten dute.

Ibarluzearentzat lehen postua eta Olaizolarentzat hirugarrena EHko txapelketako lehen jardunaldian

Urriaren hasi zuten Euskal Herriko 33. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa, Aramaioko Etxaguen auzoan. Guztira 67 bolarik hartu zuten parte lehen tiraldian eta Angel Ibarluzeak eta Aitziber Olaizolak lortutako emaitzak nabarmendu behar dira. San Migel taldeko senar-emazteak gutxiatik ez zuten lortu lehen eta bigarren postuak eskuratzea. Ibarluzea gailendu zen, hiru tiralditan zazpi txirlo botata. MX3T taldeko Iker Arizmendiarieta sailkatu zen bigarren postuan, sei txirlorekin, eta Aitziber Olaizola sailkatu zen hirugarren postuan, sei txirlo botata. Taldeka San Migel taldea izan zen onena, 21 txirlorekin, MX3T eta UDA taldeek



baino bat gehiago. Euskal Herriko txapelketak sei jardunaldi izango ditu aurten. Bigarrena urriaren 21ean jokatuko dute, Mallabiko Goita bolatokian.

Leire Egaña bederatzigarren postuan sailkatu da Espainiako ehiza txapelketan



Euskadiko Ehiza Xehetxe Txapelketan txapeldunorde izan ostean, Leire Egañak Euskadiko Ehiza Federazioa ordezkatu zuen Espainiakoan, joan den urriaren 14an, Yeclan (Murtzia, Espainia). 31 ehiztari lehiatu ziren eta Extremadura ordezkatu zuen Miriam Martinezek irabazi zuen txapelketa. Egaña bederatzigarren postuan sailkatu zen, eta hala, ezin izan zuen ondu iaz lortutako laugarren postua. 2018an eta 2019an txapeldunorde izan zen.

Inoizko parte-hartze handienarekin hasi da Eskola Kiroleko ikasturtea



Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako 449 neska-mutilek hasi dute Eskola Kiroleko ikasturtea. Azken bi urteetan gorantz egin du parte-hartzeak. 2021-2022 ikasturtean, 354 haurrek parte hartu zuten Eskola Kirolean, eta kopuru hori 426ra igo zen 2022-2023

ikasturtean. Aurten 449 haurrek eman dute izena. Parte-hartzaile horietatik %42 neskek dira eta %58 mutilak. Alabaina, nesken parte-hartzea etengabe handitzen joan dela zehaztu dute, %30etik %42ra igaro baita azken hiru ikasturteetan.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Jardun osoa lan egiteko prest. **615 379 164**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez. **620 757 528**

Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxez etxeko laguntzaile titulua daukat. **685 724 861**

Orduka edo etxeko langile moduan adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. **602 490 595**

Adinekoak zein umeak zaintzen lan egiteko prest nago, orduka. **631 229 408**

Adinekoak zein umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. Etxeko langile moduan ere bai, astelehenetik barikura. **642 893 471**

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Gauetan bakarrik. **604 986 450**

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Orduka, gauetan ere bai. **631 425 686**

Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest: eraikuntza-lanetan, tailerlean, sukaldari edo zerbitzari moduan, besteak beste. **624 353 029**

Garbiketa lanak egiteko prest nago, bulego, taberna, lantegi zein etxeetan. Esperientzia daukat. **632 008 974**

Adinekoak zaintzeko prest. Zerbitzari lanak ere egingo nituzke. **614 114 360**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **632 915 336**

Eskaintzak

Fadek ileapaindegirako langilea behar da. **624 646 336**

PARTIKULARRAK

Eskola partikularrak ematen dizkiet Lehen Hezkuntzako (LH) ikasleei. Matematika eta hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa), besteak beste. **674 463 800**


GARAJEAK

Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Sarrera erraza dauka. 18 m2 ditu. **626 591 658**

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpresa Administrazioaren Lanbide Erakundea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean lau terraza eta patio bat daude. Iritzi desberdinak daude terrazak erabiltzeko moduari buruz eta terrazak dituzten edo patioa sar daitezkeen jabeek hartzen duten konpromisoari buruz. Jakin nahi nuke nola arautu dezakegun egoera hori.</p> <p>Eraikin baten goialdean dauden terrazak estalki edo teilatu ere badira, baina horien erabilera edo gozamina jabeekideren bati esleitu ohi zaio. Terrazen erabiltzaileek garbitasun- eta kontserbazio-egoera onean eduki behar dituzte, eta horiek ez betetzeagatik beste jabeekide edo etxebizitzaren erabiltzaileei eragindako kalteen erantzuleak izango dira. Era berean, argi-patioak elementu komunak dira, eta lehen solairuek erabili ditzakete. Patio edo terraza bat teilatutxo edo antzeko elementu batekin estali nahi izanez gero, jabe guztien baimena izan behar du. Jabeekideen batzarraren baimenik gabe estaltzen badute, komunitateak izango du esku-bidea elementu horiek jatorrizko egoerara itzultzeko egokitzat jotzen dituen jarduketak hasteko. Era berean, jabe guztiek horien garbitasuna bermatzeko betebeharra dute, eta debekatuta dago edozein elementu patioetara botatzea. Patioetan arropa-esekitokiak instalatzeari dagokionez, solairu bakoitzean argi-patioaren kanpoko hormen paraleloan instalatu behar dira. Gainerako jabeekideei eragozpenik ez sortzea, horiek ere esekitokiak jartzen baitituzte edo patioetako leihoak baitituzte. Arropa xukatu egin behar da, eta azpiko solairuko leihoetara ez iristeko moduan eskegi.</p> <p>Gomendioa: komenigarria da aipatutako puntuak eta komunitateari kezka sortzen dioten beste batzuk ere barne araudian jasotzea.</p> <p>GOXOR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Gorka**, urriaren 13an 8 urte bete zenituelako. Aititita, amama eta bereziki, Julenen partez. Askomaite zaitugu.



Zorionak, **Nahia**, 8 urte bete dituzulako. Muxu pila bat zuretzako! Askomaite zaituzten familiako partez.



Zorionak, **Kattalin**, zure 3. urtebetetzean. Oso ondo ospatu genuen. Muxuak familiako guztien partez.



1951n jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroan 11n, Sigma jatetxean. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan: ES15 3035 0007 24 0071144146



Zorionak, **Naroa**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiako eta bereziki, ahizpa Malenen partez.



Zorionak, **Ane!** Etxeko txikiak 4 urte potolo! Ederki ospatu genuen asteartean! Segi beti bezain alai. Etxeko partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Sara**, igandean 2 urtetxo beteko dituzulako. Muxutxo bat etxeko denon partez.

Alcorta
FORGING GROUP

LAN ESKAINTZA

ZEREN BILA GABILTZA?
Orga-gidaria, aurretiko esperientzia duena (*lana, ekoizpen-ferroak hornitzean datza*).

KONTAKTUA: bidali zure CVa
 azubizarreta@alcortagroup.com
 670 05 06 22

ZURE ZAIN GAUDE!

EXPRESS ESKAINTZAK!

TEKA HCB 6629 SS PIZZA LABEA

A+++
↑
A
↓
D

319 €

- Ezkututzen diren aginteak
- Atera daitezkeen gidak
- Funtzio askotarikoa
- Hidroclean Eco
- 70 litro
- Herdoilgaitza
- Pizzak egiteko harri berezia

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

20 BARIKUA

17:00 Jolasa Plazara.

Jolasaren Astearen barruan hainbat jolas egingo dituzte eragile desberdinen artean. Kalegoen plazan.

18:30 Erakusketa: 'Antonio Arrillaga'. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai, azaroaren 3ra arte.

19:00 Bertso-saio musikatua: 'Tabuen kutxatik oholtzara'. Izan Iñurri minbizidun emakumeen elkarteak antolatuta. Herriko Antzokian.

21 ZAPATUA

12:00 Dantza jaialdia. Haritz dantza taldearen 50. urteurreneko ospakizunen barruan, Kezka, Duguna eta Haritz dantza taldeko dantzariak arituko dira. Kalegoen plazan.

13:00 Ion Garate 'Katalori' omenaldia. Giza Eskubideen parkean.

16:00 Ahalduntze saioa: 'Izan zu zeu'. Merlin Medinarekin. Lilan. Saio irekia, gaztelaniaz.

22 DOMEKA

16:30 Familia antzerkia: 'Potx eta Lotx aireportuan'. Herriko Antzokian.

23 ASTELEHENA

11:15 Hitzaldia: 'Duintasunez hiltzeko eskubidea'. Hizlariak: Isabel Agirre eta Iñaki Alegria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Epeletan literatura tailerra: 'Maus' (Art Spiegelmanen komikia). Maite Lopezekin, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

24 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Isaac Asimoven 'Yo robot'. Consuelo Carrererekin, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

25 EGUAZTENA

19:00 'Kantua, dantza eta komunitatea' ikuskizuna. Musika Eskolako auditoriumean.

26 EGUENA

19:00 Isiltasun eskola. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Igeriketa Eskolaren bilera, musika eskolako auditoriumean. Igeriketa Eskolan dabiltzan haurren gurasoentzat.

27 BARIKUA

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Lilan.

19:00 Antzerkia: 'Greenpiss'. Yllana konpainiak taularatuko du, Herriko Antzokian.

Eta, Debabarrenean zer?



'Esna zaitetz', Kantu Kolore. Bihar, Ermuan, 16:00etan.

Kantu kolore taldeak *Esna zaitetz* umeentzako ikuskizuna aurkeztuko du bihar Ermuan. Lobiano kulturgunean izango da, 16:00etatik aurrera. Sarrerak Kutxabank bidez erosi behar dira.

MEMORY RESTORE KOLTZOIA

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

180 cm-ko luzeerako koltzoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, **%10**

1. BABES-ZORROA
2. BIOCELL PROFILATUA
3. VISCO MEMORY
4. STRECH ELASTANO EHUNA
5. ALDERANTZIKAGARRIA

6. ATSEDEN INDEPENDENTEA
7. DESFUNDAGARRIA
8. ERGONOMIKOA
9. ZIRKULAZIOA HOBETZEA
10. AKARO-KONTRAKOAK

ALTZAIRUZKO MILAN OHE ARTIKULATUA

Luzeak: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioak: 725€ | 795€ | 1060€ | 1115€

OPARI
Buka argovakoa

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Zinea
Herriko Antzokian



'La voz del sol'

21, zapatua: 19:00 / 22:15
22, domeka: 19:00
23, astelehena: 21:00

'Aisha' (Ongarri)

25, eguaztena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

URRIA

20 BARIKUA
21 ZAPATUA
22 DOMEKA
23 ASTELEHENA
24 MARTITZENA
25 EGUAZTENA
26 EGUENA
27 BARIKUA

Egunez

Barrenetxea
■ Ibañez / ■ Yudego
■ Ibañez
Garitaonandia
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti

2023 urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Errigora otarrak



"Gipuzkoan zehar" ibilbideen liburuak



Telazko poltsak



Ohar-koadernoak



"Elgoibarren esanetan" cd-ak



Eguzkilore giltzatak



Kamisetak



Katiluak



Margolanak



Ilerako zintak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Nork ala zerk

Anjel Ugarteburu



//*"Ixa-ixa jausi da", "Ixa-ixa irabazi du, baina ez du lortu", "ixa-ixan geratu da". "Apu- apuan dago sagar heldua, adarretik jausi beharrean"* Ixa edo X (ekis), ekilibrioa. Latinez *aequus* (berdin) *libra* (balantza). Euskaraz oreka. Esaten erraza, baina izaten zaila. Nahikoa da euli bat balantzaren plater batean pausatzea oreka desegiteko edo txori bat adarrean, sagarra plaut! jausteko.

Eta hain da **beharrezkoa oreka** bakoitzaren gorputzean, adimenean zein sentimenduetan, gizarte-harremanetan zein naturan!

Haur txikiak lurtean arrastaka eta gero lau hankatan katuka dabilenean zer egiten du, bada!? Muturreko batzuk hartu eta aurrera, lau hanketako oreka lortu arte eta gero... gerokoa bai funtsezko urratsa, zutitu eta pauso batzuk egiten ausartzen denean. Zenbat saio eta zenbat erabaki, porrot eta guzti, oreka dinamikoa lortu arte! Hainbeste gihar, kirio eta lotura duen makinaria martxan jartzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula gero!

Gorputza orekaren bila dabil beti. Beharko, eroriko ez bada! Grabitatearen ardatzak erakusten digu nola jarraitu. Areago patintxoan edo bizikletan gabiltzanean. Zer esanik ez funambulistaren kasuan. Ariketa zaila, baina guztiz beharrezkoa oreka lortu eta, larrukoak zein muturrekoak barne, horri eusten saiatzea.

Ezker/eskuin binomioaren kasuan bezala, hemen ere pertsona bakoitzak behar duena gizarteari ere aplika dakiok edo, zuzen esanda, aplikatu behar zaio. Desoreka asko ikusten da gure harremanetan. Injustizia, miseria, gosea, askatasunik eza... eta haren ondoan opulentzia, norberekeria, eskubideen ukazioa, dirua nagusi duen gizartea.

Horrela goaz, balantzaka, muturrekoak eta larrukoak

larrutik beti alde batek ordainduz. Ohartu gabe bestearen miseriak eta kolpeak gizartearen gorputz guztia galbidera eramane dezakeela edo eramango duela.

Gizakia mundu txiki bat da eta gizartea gizaki handi bat. "Denok ala inor ez" zioen poetak edo "Inor inon goserik deino, ez gara gu asetuko; inor inon loturik deino, ez gara libre izango". Gizaki bakoitzak bezala, **gizarteak ere oreka behar du** jausiko ez bada. Ume baten muskulu, kirio eta arreta guztia oinez ibiltzen zein bizikletaz mugitzen saiatzen diren bezala, gizartearen oreka lortu eta zaintzen ahalegindu ezean, balantzaka ibiliko gara beti, hemen jausi eta han jausi. Ez gara inora iritsiko. Gizartearen etorkizuna ezezik bakoitzarena ere porrota izango da.

Kontua da ume batek oinez ikasten duenean, guraso edo hurbilekoen laguntzak gorabehera, berak ikusten duela orekaren ikasgaia pausoak emateko erabaki bakoitzean. "Ibiliz ikasten da oinez" errefrau zaharrean. Gizartean, oster, beste gihar eta kirio asko kudeatu behar dira oreka lortuko bada. Baina, zer da ikusten duguna? Gizarte harremanetan pertsonen nortasuna galdu egin dela. **Jada galdera ez da nork gobernatzen gaituen, zerk gobernatzen gaituen baizik.** Kapitala, diruaren interesak dira nagusi eta haien zerbitzura gobernatzen dute, administratzen esan beharko, gizartea. Gizakiak ez du jada agintzen; gizarteak ere ez, noski, desoreka sortzen duen agente horrek, etengabe bat-bateko irabaziaren bila dabilen kapitalak baizik.

Horrek guztiak, bistan denez, naturaren desoreka ere ekarri du eta areago ekarriko du, erremedio eraginkorrik jarri ezean. Eta jakina! **Naturaren oreka** zaindu edo berreskuratu ezean, akabo gizarteak zein gizabanakoak behar duguna ere.






IV. URTEURRENA

Jesus Mari Ansuategi Cobo

2019ko urriaren 15ean hil zen, 54 urte zituela.

***Joan zinen gu hemen utzita,
baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.***

Zure familia




Severi Aranguren Urkidi

2023ko urriaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxekoak



ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

OLDARRALDIAREN
EUSKARAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT
AURREAN

KONTZENTRAZIOA ELGOIBARREN

Urriak 26, osteguna - Kalegoen plazan - 19:00



Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldea

MANIFESTAZIOA BILBON

Azaroak 4, larunbata - Euskalduna - 17:00

AUTOBUSAK, Elgoibartik eta Mendarotik Bilbora joateko.

Autobusean izena emateko: Jai Alai taberna, Elgoibarko Izarraren bulegoan
(943 741 626 / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) eta www.elgoibarkoizarra.eus.

Mendaron: Morroskillo dendan.

Prezioa: 10€. Autobuserako izena emateko azken eguna: urriak 31